

IRUÑEKO GAZTEENDAKO LITERATUR LEHIAKETA

2020

EUSKERA POESIA 14-16 URTE

LEHENENGO SARIA:

Trapuzko pampina

Javier Ruiz Erice

Erori zaio trapuzko pampina umeari
korrika ari zela
Buelatu egin da mutila
aurpegia lokatzez zikina duela

Hor ikusi dut nik berriro
errealitatea
Pampin hura nire begien
berpiztea

Umeak pampinaruntz korrika egiten hasi da
baina erori egin da
Ni nire zulotik irten naiz
bera laguntzera

Zergatik ote mutilarentzat pampina
hain garrantzitsua?
Zergatik erori egin behar izan da
txikitxo gaixua

IRUÑEKO GAZTEENDAKO LITERATUR LEHIAKETA

EUSKERA POESIA 14-16 URTE

LEHENENGO SARIA:

Hurbildu naiz mutikoa ikustera
eskua odolez beteta duela
Berak behatza altxatu du
pampina seinalatzen bezala

Pampina hartu egin dut
eta eraman diot
Berak ahul hartu
eta besarkatu du

Zergatik hainbeste maite duen
galdetu diot
Berak, bere bizitzaren
bakardadearen erremedio

Familia badaukan galdetu,
denbora galtzea
Mutilaren malkoak,
eskuen odola garbitu

Nire bizitzaren trapuzko pampina,
mutil hura
Mutilaren trapuzko pampin berria,
ni